

*“No permití que el miedo me detuviera.
Quería demostrar que las mujeres podemos
correr largas distancias”*

Kathrine Switzer



EDITORIAL

ROMPIENDO BARRERAS MACHISTAS EN EL DEPORTE.

En 1967, **Kathrine Switzer** entró en la historia del atletismo al ser la primera mujer en terminar un maratón. Hasta esa fecha, el maratón era una prueba exclusivamente masculina en la que las mujeres no podían participar. Según el Comité Olímpico **“una distancia mayor a 200 metros era no solo un serio peligro para la salud de las mujeres sino también para su futura maternidad”**. Sin embargo, Kathrine logró, inscribiéndose como KV Switzer, partir de la línea de meta con el dorsal 261 y cruzar la línea final después de 4 horas y 20 minutos.

Durante la carrera cuando uno de los comisarios detectó que era una mujer

y que había burlado las normas intentó detenerla, se abalanzó sobre ella y le gritó: “¡Sal de mi carrera y devuélveme el dorsal!”. Pero la colaboración de algunos corredores impidieron que la atleta fuera retirada de la competición y lograr así acabar el recorrido.

Kathrine Switzer decidió, tras el maratón, dedicar a romper barreras machistas en el deporte. Gracias a su incansable trabajo en 1972 se abrió la participación de las mujeres en maratones. Y en 1984 logró que el maratón femenino fuera incluido como disciplina en los Juegos Olímpicos de Los Ángeles.

Quien también rompió barreras machistas y lo hizo desde muy pequeña es Itsaso Nabaskues, futbolista a la que hemos entrevistado este mes para la revista Tanttaka. Itsaso nos cuenta como desde pequeña sufrió discriminaciones por ser mujer y como les hizo frente. Y nos ofrece una serie de recomendaciones que, en su opinión, debieran tener en cuenta tanto los medios de comunicación como la administración para contribuir a visibilizar las mujeres en el deporte, promover su empoderamiento, fomentar y reconocer el deporte practicado por mujeres y en definitiva, a promover la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito deportivo.



ITSASO NABASKUES LASHERAS: JARDUERA FISIKO EGOKITUAN MASTERRA (BELGIKA ETA NORVEGIAN) ETA JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN ZIENTZIETAN LIZENTZIATUA (EHU).

Neska gazteentzat oso garrantzitsua da emakume kirolarien ereduak izatea. Hori komunikabide, hezitzaile, guraso eta administrazioaren bete beharrak direla uste dut.

Txikitatik futbolari izan nahi zenuen. Zer eredu zenuen?

Gogoratzen dut txikitik futbol jokalarie-tan Xabi Alonso nuela erreferente. Anoeta-ra joaten nintzenean ez nion begia gainetik kentzen. **Gizon baten irudia izan dut eredutzat urte askotan zehar eta horrek nahigabe ikasgarri zidan emakume izateagatik ezingo nintzela futbolari izatera iritsi, futboleko jolasten gizonak bakarrik ikusten nituelako.** Nerabeza-roan, ordea, oroitzen dut ikaragarri eragin zidala emakume futbolariak telebistan ikusteak: “Beckham izan nahi nuke” pelikula-ak edo “Ronaldinha” (Ronaldoren emaztea zena) pertsonaia mediatiko bezala agertu zenean. Baina, dudarik gabe, esperientzia esanguratsuenak telebistan emakumezkoen Athletic taldea San Mamesen jokatzen ikustea eta geroxeago Errealaren emakumezkoen taldearen sorrera izan ziren. Hor-tik aurrera izan ditudan futbolari ereduak emakumeak izan dira.

NIRE ESPERIENTZIAREN ARABERA, NESKA GAZTEENTZAT OSO GARRANTZITSUA DA EMAKUME KIROLARIEN EREDUAK IZATEA. HORI KOMUNIKABIDE, HEZITZAILE, GURASO ETA ADMINISTRAZIOAREN BETE BEHARRAK DIRELA USTE DUT.

Bereizkeriarik pairatu duzu kirol arloan emakume izateagatik? Zein?

TAMALEZ, BIZI IZAN DITUT HORRELAKO ESPERIENTZIAK, BAI, ETA HAUEK GARAIZ HASI ZIREN. Hona hemen adibide batzuk:

Eskolan nengoenean futbola ez omen zen nesken kontua: **5 urte nituela mutilek ez omen zidaten haiekin futboleko jolasten uzten. Neskak ere futboleko jolastu zituztekeela ikusteko irakasleak (emakumea zena) patioan futboleko jolasten hasten ziren, niri ere jokatzen uzteko.**

Lehen hezkuntzan futboleko jolasteko ez omen nituen gaitza motzak jarri nahi, in-guruko helduek “patorrak” nituela esaten

zidatelako. Nirekin jokatzen zuten mutilek ordea ez zieten horrelako ezer esaten. “Mari chico” edo “que pena que no eres chico” be-zalako komentarioak ere entzun izan ditut.

5. mailan eskola-kirolean neskek areto-futboleko jolatu behar zuten eta mutilek hondartzan. Nik nire lagunekin jokatzen jarraitu nahi nuen, baina neska izateagatik areto-futboleko jolatzeko egokitzen zitzaidan.

11 urte genituela futbol teknifikazio talde bat sortu zen. Lehen entrenamenduan entrenatzaileak esan zidan: “Niregatik ez dago arazorik gurekin entrenatzeko, baina hau mutilentzat da, eta zu neska zara”.

14 urteak arte utzi zidaten mutilekin jokatzen. Azken urte haietan epailearen aldagelan aldatzen nintzen beti, bai etxe-ko partiduetan, baita kanpokoetan ere.

Horiek diskriminazioak direla helduagoa nintzenean ohartu naiz. Gurasoek batai-la hauetako bakoitza gainditzen lagundu didate (Federaziora, Foru Aldundira bisita ugari egin zituzten bai), eta haien laguntzari esker zentzurik ez duten gauza batzuk aldatu ahal izan genituen, nik eta atzetik etorri diren beste neska askok, futboleko jolatzeko mutilen aukera berdina edukitzeko.

Azkeneko kasu desatsegina pasa den maiatzaren 29an hasi zen. Lehen mailako jokalaria izan arren, 3 hilabete baino gehi-ago itxaron behar izan ditut maiatzean izan nuen belauneko lesioaz operatua izateko. Ordutik bajaran egon naiz, eta orain langa-bezia kobratzen hasiko naiz. Oraindik 3-4 hilabeteko errehabilitazioa geratzen zait nire pisuko fakturak ordaintzen lagunduko didan lan baten bila hasi ahal izateko.

Zure ustez, Administrazioak zer egin beharko luke kirol arloan berdintasuna sustatzeko?

NIRE USTEZ EMAKUME ZEIN GIZONEK TXIKITATIK AUKERA BERDINAK IZAN BEHAR DI-

TUGU MAITE DUGUN KIROLA PRAKTIKATU AHAL IZATEKO, HAU DA, BALIABIDE MATE-RIAL, EKONOMIKOAK ETA GIZA-BALIABIDE BERDINAK. Horretan administrazioak zer esan handia duela uste dut.

1) Baliabideak: Diru-laguntzen banaketa berdintsuago bat egitea. Emakumeen kirolera benetan iristen den diru-laguntza zein den jakin nahiko nuke. Administrazioaren ardurak izan beharko lukeela diru hori emakumeen kirolera ere iristen dela ziurtatzea. Eta bideratutako diru-laguntza zehatzak sortzea eta claudenak mantentzea.

2) Bisibilizazioa: Komunikabide publikoetan emakume eta gizon kirolarietara eskaerak zaien espazioa berdina izatea.

3) Curriculum ezkutua: Hezkuntza Sistemari dagokionez, neska eta mutilen parte hartzean dagoen ezberdintasun nabaria ikusita, eskaintzen den eskola kirola eta mota eta jarduerak nagusiak norentzat diren interesgarriak hausnartzea ezinbestekoa dela uste dut. Eskola kirolean neskek eta mutilek elkarrekin jolastu beharko lukete. Eskola Kirola eta Gorputz Hezkuntza kirolaren ikuspegi tradizionala eta androzentrista des-erakitzeko oso baliabide interesgarriak dira.

4) Sensibilizazio Jardunaldiak: Kontzientzia-zio kanpainak ere beharrezkoak dira. Gizarteari ulertarazi behar zaio kirola orain dela arte gutxi arte gizonen espazioa izan dela eta kirol-esparru askotan oraindik hala izaten jarraitzen duela. Noski gauzak asko aldatu direla, gure amonei galdetzea besterik ez dago, baina ezin ukatu lan handia dagoela oraindik egiteko, eta hori denon ardura dela.

Ikuspegi kritiko bat duten langileak behar ditugu administrazioetan (eta batez ere politika munduan), betaurreko moreak daramatzaten pertsonak, berdintasunera eramango gaituzten eredu eraldatzaileak uztartzeko beldurrik ez dutenak.

ARRANCA UNA NUEVA EDICIÓN DEL PROGRAMA BELDUR BARIK!, UN PROGRAMA ANUAL DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA SEXISTA CON JÓVENES.

La presentación del programa Beldur Barik tuvo lugar a las 17.00 horas del pasado viernes 9 de septiembre en Berango. Para presentar todos los pormenores e iniciativas de este año, se llevó a cabo en el **Skate-park Uribekosta** una acción especial consistente en un curso de iniciación al skate impartido por **Ianire Elorriaga**, una exhi-

bición donde las chicas skaters fueron las protagonistas. También se realizó entre las

chicas que se acercaron una reflexión sobre la violencia simbólica que se da en el mundo del skate y las estrategias y actitudes Beldur Barik que cada una de ellas utiliza a la hora de practicar este deporte. En la exhibición participaron otras skaters como **Leire Oejo Lopez de Gereña**, **Adelaida Murga Salcedo** y **Marta Arribel**.



ZUREA DA HITZA!

"Zure ustez zer ezberdintasun dago eskola kirolean nesken eta mutilen artean?"



Unai Cuevas Arano
"Artxibo, liburutegi eta dokumentazioko Teknikaria"

Urte zehatz batzuetan (8 urtera arte gutxi gorabehera), neska eta mutilak ez omen dituzte gaitasun fisiko eta mugimendu gaitasun berberak. Horrela, kirol heziketan aldeak nabarmenak dira: jarduera fisikoa oraindik gizonetzkoen tradizioan errotuta dago erabat eta neska ugari 8 urterekin zerotik hasten omen da kirolean.

Hala ere, azken urteotan, nesken eta mutilen arteko parekotasuna bilatze aldera hainbat aldaketak izan dira. Izan ere, lehen neskek neskekin

eta mutilak mutilekin aritzen ziren. Egun, berriz, talde mistoetan biltzen dira batzuk zein besteak.

Nire ustez irakasleek ikasle guztiei berdin begiratuta prestatzen dituzte eskolak, bati edo besteari lehenetsirik eman gabe. Orain ez da lehen gertatzen zen bereizketa egiten, eta ikasgeletan inklusioaren aldeko joerak bultzatzen dira.

Kirolean desberdintasunak arrazoi kulturalak medio eraihi dira eta naturalizat hartu ditugu. Hori aldatu nahi bada helduen rolen kopia egiteari utzi behar zaio, inklusioaren eta kooperazioaren aldeko eskola kirolaren aldeko apustua eginez."



Itziar de Azua Brea
"Kultura Ondarearen teknikaria"

Jarrerari dagokionez, mutilak, orokorrean, entrenamenduetatik kanpo denbora gehiago ematen diote kirolari: atsedeen-aldietan, klase amaieran; txikitatik horretarako bultzatzen zaielako, berez mugituagoak direlako edo arrazoi biengatik. Neskek, berriz, ekipoetan sartuta badaude ere, entrenamenduz kanpo gutxiago jolasten dute: taldetxoetan egoten dira, kirolaz kanpoko beste jardueretan.

Futbola nagusi izaten da mutilen artean, eta

argi dago kirol horren eragin sozialaren ondorioa dela; gurasoak eta, batez ere aitak, hiperinplikaturik egoten dira eta, agian, zerikusi handia izango dute semeen aukera horretan. Mutil askok eskolatik kanpoko herriko ekipoetan jolasten dute eta urteetan jarraitzen dute. Neskek, normalean, beste kirol batzuk aukeratzen dituzte: saskibaloia, boleibola. Eta gustatuz gero ere, futboleko aukera gutxi izaten dute: neska gutxi futbolzale eta kategoria batetik aurrera ez dira ekipo mistoak onartzen. Nesken kasuan, gurasoen inplikazioa ere handia izaten da, baina gutxiago apuntatzen dira eskolaz kanpoko kirolean eta herriko ekipoetara, eta are gutxiagok irauten dute nagusitan kirola praktikatzen.

Ba al dakizu?

KIROL-ARLOKO EGUNGO EGOERAREN AZTERKETAREN ARABERA

- Eskolaz kanpoko kirol-jarduerak hasten direnetik, lehenengo desorekak ikusten dira sexuaren araberako presentzian, eta, ibilbidea ez da bera nesken eta mutilen kasuan. Kirol-jardueran hasteko, jarduera horretan presentzia izateko, jarduera horri eusteko eta berau uzteko egoerak eta arrazoiak ez dira berdinak nesken eta mutilen kasuan
- Kirol federatuen emakumeen presentzia minoritarioa da eta bereizketa horizontala gertatzen da.
- Emakumeen kirol-jarduerak osasunari eta ariketa fisikoari lotuta daude, eta ez hainbeste kirol-lehiari.
- Kirol-egitura guztietan, bai maila publikoan, bai pribatuan, oso txikia da emakumeen ordezkaritza.
- Diru-laguntza ildoen bidezko baliabide publikoen banaketa ekitatibo eraginkorra mugatua da eta baliabide publiko horietan monopolizazio-maila altua dago gizonen aldetik.
- Goi-mailako kirolean, gizonen finantzaketa bikoitza edota hirukoitza lortzen dute.
- Komunikabideek kirola ia erabat gizonetzkoena dela islatu dute, mutilentzako kirolarekiko identifikazioa eredu soziala sortzen eta indartzen joan da, nesken kalterako.



EMAKUME KIROLARIEN INGURUKO DOKUMENTALA

Hernaniko Udaleko Kirol eta Berdintasun Sailak egin du 13 minutuko dokumentala, Jarduera Fisikoa eta Kirol Sailarekin elkarlanean.

Herriko emakumeak dira dokumentalaren prota-

gonistak eta helburua da "emakumeok jarduera fisikoarekin eta kirolarekin dugun harremana ikustaraztea". Bideoan ageri dira Ainhoa Azurmendi Auentoko kirol aholkularia, Kristina Iriberrri palista, Eva Esnaola ultrafondoko atleta, Miren Lopez arraunlaria eta Jenny Perla Jarduera Fisikoa eta Kirolean lizentziatua.

